

## EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALEN AKREDITAZIOA BERRITZEKO PROTOKOLOA

*Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzordeak 2021eko uztailaren 6an onartutako dokumentua*

### 1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA

Unibertsitate-ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak eta haren ondorengo aldaketek unibertsitate-ikasketa ofizialen egiaztapena, jarraipena eta akreditazioa berritzeko prozesuen arau-esparru orokorra ezartzen dute.

24.2 artikuluan ezartzen denez, unibertsitate-titulu ofizialen akreditazioa epe hauen barruan berrituko da:

- a) 240 kredituko Gradu unibertsitate-titulu ofizialek gehienez ere sei urteko epean berritu beharko dute akreditazioa.
- b) 300 kredituko Gradu unibertsitate-titulu ofizialek zazpi urteko epean berritu beharko dute akreditazioa.
- c) 360 kredituko Gradu unibertsitate-titulu ofizialek zortzi urteko epean berritu beharko dute akreditazioa.
- d) Masterreko unibertsitate-titulu ofizialek lau urteko epean berritu beharko dute akreditazioa.
- e) Doktoregoko unibertsitate-titulu ofizialek gehienez ere sei urteko epean berritu beharko dute akreditazioa.

Epe hori Gradu-, Master- edo Doktorego-tituluaren hasierako egiaztapenetik edo haren azken akreditaziotik hasiko da kontaktzen.

Gradu, Master eta Doktoregoko unibertsitate-titulu ofizialek akreditazioa berrituko dute, autonomia-erkidego bakoitzak bere eskumen-esparruko unibertsitateekin ezartzen duen prozeduraren arabera, 27 bis artikuluan xedatutakoaren esparruan.

Ildo horretan, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuak (Gradu, Master eta Doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoak) ezartzen du dagokion Unibasqen protokoloaren bidez arautuko dela akreditazioa berritzeko prozedura.

Unibertsitateen Kalitate-Agentzien Espainiar Sarearen kide diren ebaluazio-agentzia guztiak lankidetzan jardun zuten akreditazioa berritzeko "*Criteria y directrices de evaluación en el seguimiento y acreditación de títulos oficiales de Doctorado*" dokumentua idazten. Dokumentu hori 2013ko azaroaren 6ko Akreditazioa berritzeko eta horren jarraipena arautzeko Unibertsitate Batzordearen (CURSA) bileran onartutako protokoloaren eta 2014ko maiatzaren 8ko eta 9ko REACU-ko bileran onartutako idazlanaren ondorengo aldaketen atala da.

Akreditazioa berritzeko ebaluazioan lortutako esperientziaren ondorioz, eta CURSA protokoloa, indarrean dagoen araudia eta E4 taldeak European Association for Quality Assurance in Higher Education, (ENQA), European Students' Union (ESU), European University Association (EUA), European Association of Institutions in Higher Education (EURASHE), Education International-ekin (EI), BUSINESSEUROPEkin eta European Quality Assurance Register of Higher Education-ekin (EQAR) elkarlanean egindako Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan Kalitatea Bermatzeko Irizpide eta Jarraibideak erreferentziazat hartuta, Agentziaren Aholku Batzordeak, 2021eko uztailaren 6ko bileran, aurrekoa ordezkatzeko duen protokolo berri bat onartzeko erabakia hartu du. Protokolo horren edukia hurrengo ataletan ezarritakoa izango da.

Protokolo horretan aipatzen diren eranskinak eskuragarri daude Unibasqen webgunean (<http://www.unibasq.eus>):

- I. Eranskina: Unibertsitateak akreditazioa berritzeko, Autoebaluazio-txostena egiteko txantiloia
- II. Eranskina: Bisita-panelak bisita prestatzeko tresna
- III. Eranskina: Panelaren bisitarako agenda-eredua
- IV. Eranskina: Bisita-txostenaren txantiloia, akreditazioa berritzeko ebaluazioa egiteko
- V. Eranskina: Akreditazioa berritzeko txostenaren txantiloia

## **2. HELBURUA ETA EREMUA**

Akreditazioa berritzea ebaluazioa-prozesu orokor baten parte da, nahitaezkoa, eta Unibertsitate-, Zentro- eta Tituluen Erregistroan (RUCT) inskribatutako Euskal Unibertsitate Sistemaren titulu ofizial guztiek jarraitu behar dute aldian-aldian).

Protokolo horrek Euskal Autonomia Erkidegoko eskumen-esparruko RUCTen erregistratuta dauden unibertsitateen Gradu eta Master titulu ofizialen akreditazioa berritzeko irizpideak ezartzen ditu. Titulua unibertsitate artekoa bada, tituluaren akreditazioa eskatu zuen Unibertsitatea kokatuta dagoen Autonomia Erkidegoaren ebaluazio-agentziak berrituko du.

## **3. XEDEAK**

Akreditazioa berritzeko programaren xedeak honako hauek dira:

- Eskaintako hezkuntza programaren kalitatea bermatzea, indarrean dagoen legediaren irizpideen eta ezarritako kualifikazio-mailaren arabera.
- Unibertsitate-irakaskuntza ofizialak garatzean lortutako emaitzen kalitatea hartutako eta egiaztatutako konpromisoekin bat datozela bermatzea.
- Tituluak jarraipen-prozesu egokia izan duela eta bere garapena aztertzeke eta egokiak diren hobekuntza-proposamenak sortu eta abian jartzeko, eskuragarri dagoen informazio kuantitatiboa zein kualitatiboa erabili dela egiaztatzea.
- Informazio publikoa, baliozkoa, fidagarria, egokia eta garrantzitsua eskuragarri dagoela eta erabilgarri dagoela ziurtatzea, unibertsitate-sistemaren erabiltzaileei eta interes-agentteei erabakiak hartzen laguntzeko.
- Titulua hobetzeko gomendioak eta/edo iradokizunak ematea, prestakuntza-programaren eta haren garapenaren kalitatea hobetzeko barne-prozesuei laguntzeko. Horiek kontuan hartu beharko dira etorkizuneko jarraipenetan eta berritzeetan.

Akreditazioa berritzeko prozesuari esker, egiaztatu ahal izango da titulua egiaztapen-memorian (edo gerora egin diren aldaketetan) ezarritakoaren arabera eskaintzen ari den, eta lortutako emaitzek eta horien bilakaerak akreditazioa berritzea justifikatzen duten. Halaber, akreditazio ebaluazio-prozesuak tituluaren emaitzak hobetzeko arreta berezia jarri behar zaien alderdiak identifikatzen lagunduko du.

## **4. EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAREN TITULU OFIZIALEN AKREDITAZIOA BERRITZEKO TXOSTENA EGITEKO PROZEDURA.**

### **4.1 Eskaeraren sarrera Unibasqen.**

Abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Unibertsitateak Eusko Jaurlaritzan unibertsitateen gaietan eskumena duen sailean eskaera aurkezten duenean hasiko da prozedura, unibertsitateen gaietan eskumena

duen Sailburuaren agindu bidez onesten diren epeetan. Eskaerarekin batera, Unibertsitateak autoebaluazio txostena (I. eranskina) eta autoebaluazio hori justifikatzen duten ebidentziak aurkeztuko ditu.

Espedientea bideratu ondoren, Unibertsitateen gaietan eskumena duen sailak Unibasq-era bidaliko du.

#### **4.2 Bisita-panela eratzea**

Unibasqek bisita-panelak eratuko ditu. Talde horiek egingo dituzte titulazioaren ezarpenaren ebaluazioa eta ebaluatu beharreko titulua ematen den zentrora egiten den bisita.

Bisita-panelaren jarduerak Unibasqek Etika eta Berme Kodean ezarritako jarraibideen arabera arautuko dira, baita dokumentu honetan jasotako barne-prozedurako arauen arabera ere.

Bisita-panela, salbuespenik izan ezean, honela eratuko da:

- Presidente bat, ospe akademikoa duena (katedraduna edo baliokidea), Unibasqen edo beste agentzia baten titulazioen egiaztapen, jarraipen eta/edo akreditazioa berritzeko prozesuetan esperientzia duena.
- Batzordekide akademikoen kopuru aldakorra, honako hauen arabera zehaztuko dena:
  - Ebaluatu beharreko titulu kopurua.
  - Ebaluatu beharreko tituluaren esparru akademikokoaren heterogeneotasuna.
- Idazkari-lanak egingo dituen pertsona bat.
- Ebaluatu behar den tituluaren adar akademikoko ikasle bat, ebaluazio prozesuetan trebatua.
- Kalitatea Bermatzeko Sistemaren (KBS) aditua den pertsona bat.

Bisita-panelean parte hartu ahal izango du, Unibertsitateak edo tituluaren ezaugarriek hala eskatuz gero, ebaluatu beharreko tituluaren esparru zientifiko-teknikoko kide profesional batek edota ebaluazio prozesuetan esperientzia duen atzerriko aditu batek.

Unibasqek bere webgunean argitaratuko du bisita-panelen osaera.

#### **4.3 Panelak tituluaren akreditazioa berritzeko txostena jaso eta banakako azterketa**

Behin Unibasqek Autoebaluazio txostenak ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Agentziak Bisita-panelari tituluaren akreditazioa berritzeko dosierera sartzeko aukera emango dio. Dosier horretan, bisita egiteko behar den tituluaren informazio guztia sartuko da:

- Egiaztapen-memoriaren azken bertsioa, tituluak eskatutako eta aldeko erantzuna izan duten aldaketak jaso dituenak, akreditazio-txostenak, edo hala balegokio, tituluaren aldaketa-txostena.
- Hala badagokio, Unibasqek egindako tituluaren baimen-txostena.
- Tituluaren barne-jarraipenaren urteroko txostenak eta Unibasqek egindako kanpo-jarraipenaren txostenak.
- AUDIT programatik eratorritako BKSren Ezarpenaren ziurtapen-txostenak eta BKStik lortutako ebidentziak.
- DOCENTIA programaren ziurtapen-prozesuaren txostenak.
- Akreditazioa berritzeko ezarritako adierazleak.
- Tituluaren akreditazioa berritzeko Autoebaluazio-txostena. Horren bidez, Unibertsitateak justifikatu beharko du lortutako emaitzek tituluaren helburuak betetzen dituztela, eta aurreko puntuetan jasotako ebidentziak eta autoebaluazio-txostenarekin batera aurkeztu beharreko ebidentziak zabaldu edo osatu ahal izango ditu.

Bisita-panelaren kideek tituluaren informazioa aztertu eta banakako azterketa egingo dute. Lan hori errazteko, Unibasqek talde horretako kideei aplikazio batera sarbidea emango die, tituluaren dosierraren kontsulta eta dagokion ebaluazioa (II. Eranskina) egin dezaten.

#### **4.4 Bisita-panelak egindako banakako analisiaren bateratze-lana**

Banakako azterketa egin ondoren, bisita-panelaren kideek egindako analisiaren ondorioz ateratako gogoeta nagusiak bateratuko dituzte, bai eta haien lehen iritziak ere. Bateratze-lanean, bisita-panelak bisitan azpimarratu beharreko alderdiak zehaztu behar ditu, baita honako hauek ere:

- Eskatu beharreko beste zenbait ebidentzia : informazio gehigarria identifikatu. Halaber, nahasiak, kontraesankorrak edo ebidentzietan oinarritzen ez diren alderdiak nabarmentzeko behar diren datuak identifikatzea.
- Elkarrizketatu beharreko taldeak eta galderak: bisita egunean elkarrizketatu behar den taldea eta argitu behar diren gai nagusiak identifikatzea.
- Instalazioak bisitatzea: instalazio espezifikoak bisitatzeko aukera.
- Aztertu beharreko irakasgaien hautaketa: Graduak eta Masterreko tituluen kasuan, titulu bakoitzeko, gidalerro ezberdinak baloratzeko lagin gisa balio dezaketen irakasgaiak adostea. Graduaren kasuan gutxienez 5 irakasgai hautatzea gomendatzen da; oinarritzko bat, derrigorrezko bi, hautazko bat eta GRAL. Aukeratutako irakasgai horietako bakoitza ikasturte ezberdin batekoa izatea gomendatzen da. 60 ECTSeko Master baten kasuan, gutxienez irakasgai bat eta MAL; eta 120 ECTSeko masterretan, gutxienez bi irakasgai eta MAL. Arretaz aztertuko dira: Irakaskuntza Gidak, irakasleen CV laburtuak, horien profilak irakasgaiekin bat datozen ebaluatzen, irakaskuntza-emaitzen eta gaitasunen ebaluazio-prozedurak, irakaskuntza-metodologia prestakuntza-jarduerekin eta gaitasunak eskuratzeko ebaluazioarekin lerrokatzea, irakasgaia dagokion MECESen mailara egokitzea, irakasgaiaren ebaluazio-ereduaren bitartez gaitasunak eskuratu izanaren egiaztapena, praktiken egokitzea eta teoriarekin koordinazioa, etab. Balorazio horietako asko bisita gauzatu baino lehen egingo dira, Unibertsitateak alde aurretik emandako informazioaren bidez.
- Agenda-proposamena (III. Eranskina): Aurrekoaren arabera, agenda bat egin eta Unibertsitateari bidaliko da. Ebaluatu beharreko tituluak gaiaren eta irakasten diren zentroaren arabera taldekatuko dira.

#### **4.5 Unibertsitateak bisita prestatu**

Unibertsitateak zeregin hauek beteko ditu bisita prestatzeko:

- Bisita-panelaren eskura jartzea behar diren aretoak edo gelak, behar bezala egokituak, bai aurreikusitako elkarrizketak, bai bildutako informazioa bateratzeko eta barne-bilerak ere egin ahal izateko. Halaber, ebaluazio-taldeari Interneten sartzeko erraztasunak eman beharko dizkio.
- Bisita-panelari joan-etorriak erraztea, beharrezkoa den kasuetan.
- Talde ezberdinei (IIP, AZP, ikasleak, ikasleen ordezkariak edo erakunde laguntzaileak, besteak beste) panelaren bisitaren berri ematea, eta, bereziki, bisitaren agenda eta jendaurreko audientzia jakinaraztea.
- Bisita-panelak horrela eskatuta, inplikaturako kolektiboetako pertsonak hautatzea, iradokizunak eta hobekuntza-ekintzak azaleratzeko beharrezkoak diren ikuspegiak ziurtatuz, Agentziak ezarritako jarraibideen eta/edo jarraibide espezifikoaren arabera, eta talde horiekin bilerak behar bezala antolatzea.
- Bisita-panelari akreditazioa berritzeko ebaluazio-prozesuari buruz egin ditzakeen eskaeretan erantzutea. Unibertsitateko pertsona bat arduratuko da bisita-panelari harrera egiteaz, ongi etorria emateko eta beren jarduna errazteko behar duten guztia antolatzeko, bai eta bisita amaitutakoan agurtzeaz ere.

- Eskatutako gainerako ebidentziak bisita-panelaren esku izatea.

#### **4.6 Bisita-panelaren bisita**

Planifikatutako egunetan, ebaluatu beharreko titulua edo tituluak atxikita dituen zentroa bisitatuko da.

Bisita- agendan jasotako talde ezberdinak elkarrizketatuko dira eta tarte bat izango da alde aurretik bisita-panelak eskatutako ebidentziak berrikusteko eta entzunaldi publikoa egiteko. Titulazioarekin zerikusia duen pertsona orok parte hartu ahal izango du entzunaldi horretan, titulazioari buruzko informazio gehiago eman nahi badu.

#### **4.7 Panelak bisita-txostena egingo du**

Bisita-panelak bisita-txostena egingo du. (IV. Eranskina).

Nahiz eta batzorde-burua izan txostena idazteko azken arduraduna, taldekideen artean banatuko da txostenaren zirribororak egiteko lana. Txostena modu kolegiatuan egingo da.

Bisita-txostena amaitutakoan, bisita-panelaren Presidenteak Unibasq-era bidali beharko du.

#### **4.8 Titulazioen Ebaluazio-Batzordeak tituluaren dokumentazioa aztertuko du.**

Unibasqek, alde aurretik esleitutako Ebaluazio Batzordeek Autoebaluazio-txostena, bisita-txostena eta egiaztapen-dosierrean jasotako tituluari buruz eskuragarri dagoen gainontzeko informazioa aztertuko dute.

Egindako analisiaren ondorioz, Batzordeak ebaluazio-txostena prestatuko du (V. Eranskina). Behin-behineko ebaluazio-txostena honelakoa izan daiteke:

- akreditazioa berritzearen aldekoa edo
- aldeko txostena lortzeko nahitaez aldatu beharreko alderdiak jasotzen dituen.

Txosten guztiak, emaitza edozein dela ere, arrazoitu egin behar dira, hobekuntza-gomendioak jaso ditzakete eta/edo Hobekuntza-Plan bat eskatu ahal izango da.

#### **4.9 Behin-behineko txostenaren bidalketa eta alegazioak**

Bisita-panelak egindako Bisita-txostena eta Behin-Behineko Txostena Unibertsitatera bidaliko dira, 20 egun balioduneko epean, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan. Behin-Behineko txostenaren emaitza “aldeko txosten bat lortzeko nahitaez aldatu beharreko alderdiekin” bada, Unibertsitateak antzemandako akatsei buruz egokiak deritzon argibideak eman ditzake.

Argibide horiez gain, Unibertsitateak, hala badagokio, Hobekuntza Plan bat erantsi ahal izango du, erakundearen prozesuetan ezarriko diren aldaketei buruzko erabaki estrategikoa barne hartuko duena, aldaketa horiek akreditazioaren Behin-behineko Txostenean identifikatutako gabezien hobekuntza bihurtu daitezen. Plan horrek garatu beharreko ekintzen kontrola.

Epea iraganik inork alegaziorik aurkeztu ez badu, unibertsitateak haiek aurkezteari uko egiten diola ulertuko da eta txosten hori behin betiko Txostena izango da.

#### **4.10 Tituluen Ebaluazio Batzordeak alegazioen azterketa egingo du**

Alegazioak eta, hala balegokio, Hobekuntza Plana jaso eta gero, dagokion Batzordeak analisia egingo du, Unibertsitateak planteatutako argibideak eta proposatuko Hobekuntza Planaren bideragarritasuna aztertuz. Azterketa horren ondorioz, Batzordeak erabakiko du Behin-Behineko txostena aldatuko duen ala ez.

#### **4.11 Unibasq-en Akreditazioa Berritzeko behin betiko txostena egin eta igorri**

Unibasqek akreditazioa berritzeko azken txostena egingo du, dokumentu honen 6. atalean adierazitako irizpideak gainditzeko baldintzen balorazioa kontuan hartuta. Txosten hori tituluaren akreditazioa berritzearen aldekoa edo kontrakoa izan daiteke.

Unibasqek Behin Betiko txostena bidaliko die Unibertsitate eskatzaileari, Unibertsitate Kontseiluari, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari eta unibertsitateen gaitan eskumena duen Eusko Jurlaritzako Sailari, eta, hala badagokio, inplikaturako gainerako Autonomia Erkidegoei. Kanpo Kalitate Agentzietarako nazioarteko erreferentziako estandar nagusiek iradokitzen duten bezala, Unibasqek akreditazioa berritzeko txostenak argitara eman ahal izango ditu, egokitzat jotzen dituen bitartekoen bidez.

#### **4.12 Unibertsitate Kontseiluaren Akreditazio-ebazpena**

Azkenik, Unibertsitate Kontseiluak tituluaren akreditazioa berritzeari buruz ebazpena emango du.

Ebazpena eman ondoren, Unibertsitate Kontseiluak unibertsitateen gaitan eskumena duen Ministerioari, Euskal Autonomia Erkidegoari eta Unibertsitateari jakinaraziko die dagokion ebazpena. Akreditazioa berritzeko ebazpena aldekoa bada, Ministerioak RUCTean inskripzioa egingo du. Kontrakoa bada, egun horretatik aurrera titulua iraungita agertuko da erregistroan.

#### **4.13 Helegitea**

Unibertsitateak, Unibertsitate Kontseiluaren ebazpenaren aurka, helegitea aurkeztu ahal izango dio Kontseiluburuari, ebazpena eman eta hilabete bateko epean (861/2010 Errege Dekretuaren 27.7 bis artikulua). Unibertsitate Kontseiluak, bere adituen batzordearen bitartez, ebazpena berretsi edo erreklamazioa onartu eta Unibasqi igorri ahal izango dio, berrikusi beharreko ebaluazioaren alderdiak zehatz adieraziz. Hori guztia, erreklamazioa aurkeztu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Unibertsitateak Eusko Jurlaritzan unibertsitateen arloko eskumena duen Sailari jakinarazi beharko dio helegitea jarri duela, hori jarri eta hurrengo hamar egunen barruan.

Titulazioen bost Ebaluazio Batzordeetako presidentek erreklamazioa aztertu eta ebatziko duen Batzordea osatuko dute, eta haien erabakia Unibertsitate Kontseiluari helaraziko diote.

### **5. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**

Ebaluazio-eredua hiru alderditan oinarritzen da:

- **TITULUAREN KUDEAKETA.** Puntu hauek aztertuko dira: Ikasketa planaren kudeaketa eta antolakuntza (sarbidea, irakaskuntza koordinazio-mekanismoak eta kredituen aitorpena eta transferentzia sistemak), tituluaren gardentasuna eta ikuspena, interesa duten agente ezberdinei tituluaren gainean ematen zaien informazioari dagokionez, BKSren eraginkortasuna informazioa jaso, aztertu, hobetu, ekintzak ezarri eta horien jarraipen egokia egiteko baliabide gisa.
- **BALIABIDEAK.** Puntu hauek aztertuko dira: baliabide materialen eta irakaskuntza pertsonalaren egokitzapena tituluan definitutako gaitasunak lortzen direla bermatzeko, ikasleriaren eskura jarritako azpiegitura eta zerbitzuak.
- **EMAITZAK.** Tituluaren emaitzekin eta hura garatu bitartean izan duten bilakaerarekin zerikusia duten alderdiak ebaluatuko dira. Alde horretatik, Unibertsitateak ezarritako mekanismoak aztertuko dira ikasleak titulurako hasieran definitutako gaitasunak edo, hobeto esanda, ikaskuntzaren emaitzak behar bezala

bereganatu dituela egiaztatzeko. Eraitza akademiko, profesional (enplegagarritasuna) eta pertsonalen (prestakuntza esperientziaren gogobetetasuna) adierazleen bilakaera ere aztertuko da.

Dimentsioak, era berean zazpi irizpidetan zabaltzen dira. Irizpide horiei esker, behar den informazioa identifikatu ahal izango da, behar bezala aztertzeko. Irizpide bakoitza lortu beharko litzatekeen estandar baten arabera definitzen da.

Azkenik, irizpide bakoitza ebaluazio gidalerro batean edo gehiagotan zehazten da. Horien gainean honako hau adieraziko da (II. Eranskina):

- Azterketaren oinarriak.
- Balio-iritzien formulazioaren oinarri diren ebidentziak eta adierazleak (ildo bakoitzean, proposatutako dokumentazioa adierazten da).

<i>1. ALDERDIA TITULUAREN KUDEAKETA</i>	<i>2. ALDERDIA BALIABIDEAK</i>	<i>3. ALDERDIA. EMAITZAK</i>
1. IRIZPIDEA ANTOLAKUNTZA ETA GARAPENA	4. IRIZPIDEA LANGILE AKADEMIKOAK	6. IRIZPIDEA IKASKUNTZA-EMAITZAK
2. IRIZPIDEA INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA	5. IRIZPIDEA LAGUNTZAKO LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK	7. IRIZPIDEA GOGOBEETZE- ETA ERRENDIMENDU- ADIERAZLEAK
3. IRIZPIDEA KALITATEA BERMATZEKO SISTEMA		

## 1.ALDERDIA. TITULUAREN KUDEAKETA

### 1. IRIZPIDEA. ANTOLAKUNTZA ETA GARAPENA

Estandarra:

Prestakuntza-programa eguneratuta dago eta egiaztaturiko memorian eta/edo ondorengo aldaketetan ezarritako baldintzen arabera ezarri da.

1.1 Gidalerroa: Ikasketa-plana ezartzea eta programa antolatzea koherenteak dira egiaztapen-memorian eta/edo ondorengo aldaketetan jasotako titulazioaren gaitasun eta helburuen profilarekin.

1.2 Gidalerroa: Definitutako egreso-profilak (eta ikasketa planean duen hedadurak) garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren, zientifikoaren edo profesionalaren baldintzen arabera eguneratuta dago.

1.3 Gidalerroa: Tituluak irakaslana koordinatzeko mekanismoak ditu (irakasgaien/irakasgaien arteko artikulazio horizontala eta bertikala), eta mekanismo horiei esker, ikasleen lan-karga egoki esleitu daiteke, eta denbora-plangintza egokia egin daiteke, ikaskuntza-emaitez lortuko direla bermatuz.

1.4 Gidalerroa: Ezarritako onarpen-irizpideek ikasleek ikasketa hauek hasteko behar duten sarbide-profil egokia izatea ahalbidetzen dute eta horiek aplikatzean egiaztapen-memorian eskaintzen den plaza kopurua errespetatzen da.

1.5 Gidalerroa: Araudi akademiko ezberdinen ezarpena (iraunkortasuna, onespena, etab ... ) era egokian burutzen da eta errendimendu akademikoaren adierazleen balioak hobetzea ahalbidetzen du.

### 2. IRIZPIDEA. INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA

Estandarra:

Erakundeak baditu mekanismoak programaren ezaugarriak eta kalitatea bermatzen duten prozesuak interes-talde guztiei modu egokian jakinarazteko.

2.1 Gidalerroa: Tituluaren arduradunek informazio egokia eta eguneratua ematen dute prestakuntza programaren ezaugarri, garapenari eta emaitzei buruz, bai jarraipenari bai akreditazioari dagokienez.

2.2 Gidalerroa: Tituluan interesa izan dezaketen ikasleek eta Espainiako eta nazioarteko unibertsitate-sistemako beste eragile batzuek erabakiak hartzeko behar duten informazioa erraz eskura daiteke.

2.3 Gidalerroa: Tituluan matrikulatutako ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-baliabideei buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera izaten dute dagokion.

### 3. IRIZPIDEA: KALITATEA BERMATZEKO SISTEMA (KBS)

Estandarra:

Erakundeak tituluaren etengabeko hobekuntza modu eraginkorrean ziurtatzen duen kalitatearen barne bermerako sistema bat dauka, formalki ezarria eta ezarria

3.1 Gidalerroa: Aldizka ezarritako eta berrikusitako KBSk informazioa eta tituluaren kudeaketa eraginkorrerako emaitza garrantzitsuak bildu eta etengabe aztertzea bermatzen du, bereziki ikaskuntzaren emaitzak eta interes-taldeen gogobetetzea.

3.2 Gidalerroa: Ezarritako KBSk tituluaren jarraipena, aldaketa eta akreditazioa egiteko prozesua errazten du, eta datu objektiboen azterketatik abiatuta haren etengabeko hobekuntza bermatzen du.

3.3 Gidalerroa: Ezarritako KBSk irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatea ebaluatzen eta hobetzen laguntzen duten prozedurak ditu.



## 2. ALDERDIA. BALIABIDEAK

### 4. IRIZPIDEA. LANGILE AKADEMIKOAK

Estandarra:

Eskolak ematen dituzten langile akademikoak nahikoa eta egokiak dira, tituluaren ezaugarrien eta ikasle kopuruaren arabera.

4.1 Gidalerroa: Tituluaren langile akademikoek titulurako eskatzen den kualifikazio akademikoaren maila dute, eta esperientzia profesional eta irakaskuntza- eta ikerketa-kalitate egokia dute.

4.2 Gidalerroa : Langile akademikoak nahikoa dira eta beren eginkizunak betetzeko eta ikasleei laguntzeko dedikazio egokia dute.

4.3 Gidalerroa : Irakasleak eguneratu egiten dira, tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari egoki ekiteko moduan.

4.4 Gidalerroa : (Hala badagokio) Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-, baimen eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak (irakasleen kontratazioari eta haien irakaskuntza- eta ikerkuntza-kualifikazioa hobetzeko dagozkienak) gauzatu ditu.

### 5. IRIZPIDEA. LAGUNTZAKO LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK.

Estandarra:

Laguntzako langileak, baliabide materialak eta tituluaren garapenerako jarritako zerbitzuak egokiak dira izaeraren, tituluaren modalitatearen, matrikulatutako ikasle kopuruaren eta horiek eskuratu beharreko gaitasunen arabera

5.1 Gidalerroa : Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten laguntzako langileak nahikoak dira eta tituluari lotutako langile akademikoaren irakaskuntza-jarduerari ondo eusten diote.

5.2 Gidalerroa : Baliabide materialak (gelak eta haien ekipamendua, lan egiteko eta ikasteko guneak, laborategiak, tailerrak, esperimentaziorako guneak, liburutegiak eta abar) ikasle kopuruari eta tituluaren programatutako prestakuntza-jardueri egokituta daude.

5.3 Gidalerroa Urrutiko modalitateko/modalitate erdi presentzialeko tituluaren kasuan, haiei lotutako azpiegitura teknologikoen eta material didaktikoen aukera ematen dute prestakuntza-jarduerak garatzeko eta tituluaren gaitasunak eskuratzeko.

5.4 Gidalerroa : Matrikulatutako ikasleen eskura jartzen diren laguntza eta orientazio akademiko, profesional eta mugikortasunerako zerbitzuak tituluaren gaitasunetara eta modalitatara egokituta daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua errazten dute.

5.5 Gidalerroa: Tituluak kanpoko praktikak/klinikak egitea aurreikusten badu, tituluaren gaitasunak eskuratzeko aurreikusitakoaren arabera planifikatutakoak eta egokiak izango dira.

5.6 Gidalerroa : Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-, baimen-, eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak (prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten laguntzako langileei, baliabide materialei eta tituluaren biltzen diren laguntza-zerbitzuei dagozkienak) gauzatu ditu.

### 3. ALDERDIA. EMAITZAK

#### 6. IRIZPIDEA. IKASKUNTZA-EMAITZAK

Estandarra:

Tituludunek lortutako ikaskuntza-emaizak bat datoz egreso-profilarekin, eta baita tituluaren MECESen mailarekin (Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua)..

6.1 Gidalerroa: Prestakuntza jarduerak, haien irakaskuntza metodologiak eta erabilitako ebaluazio sistemak egokiak dira eta bat datoz aurreikusitako ikaskuntzaren emaitzak lortzeko helburuarekin.

6.2 Gidalerroa: Lortutako ikaskuntza-emaiztek prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte eta programa horren Goi-mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparruko mailari egokituta daude.

#### 7. IRIZPIDEA. GOGOBEETETZE- ETA ERRENDIMENDU-ADIERAZLEAK.

Estandarra:

Prestakuntza programaren adierazleen emaitzak bat datoz tituluaren eskura jarritako diseinu, kudeaketa eta baliabideekin, eta inguruko eskaera sozialak asetzen dituzte.

7.1 Gidalerroa: Tituluaren datu eta adierazle garrantzitsuenen bilakaera (ikasturte bakoitzeko ikasle hasi berrien kopurua, graduazio-tasa, uzte-tasa, efizientzia-tasa, errendimendu-tasa eta arrakasta-tasa) egokia da, titulu txertatzen den gai-eremuarekin eta ingurunearekin bat datorrena, eta koherentea hasi berriak diren ikasleen ezaugarriekin.

7.2 Gidalerroa: Ikasleen, irakasleen, egresatuen eta bestelako interes-taldeen gogobetetze-maila egokia da.

7.3 Gidalerroa: Tituluaren egresatuen laneratze-mailaren adierazleen balioak egokiak dira tituluari dagokion testuinguru zientifikorako, sozioekonomikorako eta profesionalerako.

## 6. IRIZPIDEEN BALIOESPENA

Aurretik aipatutako akreditazio-irizpide eta gidalerro bakoitza lau mailatan baloratuko da, hala badagokio:

- Bikain gainditzen da. Irizpideari dagokion estandarra guztiz lortzen da eta, gainera, oinarritzko eskakizunak gainditzen dituen adibidea da.
- Lortzen da. Irizpideari dagokion estandarra guztiz lortzen da.
- Neurri batean lortzen da. Estandarra gutxieneko mailan lortzen da, baina hobetu beharreko alderdi zehatz batzuk antzematen dira.
- Ez da lortzen. Irizpideak ez du lortzen dagokion estandarrera heltzeko eskatutako gutxieneko maila.

Balioespen erdi-kuantitatiboa Bisita-txostena egiterakoan baino ez da erabiliko, II. Eranskinean jasotakoaren arabera.

Prozedura honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira akats larritzat eta akreditazioa berritzearen kontrako txostena egitea ekarriko dute:

- Unibasqen Jarraipen txostenetan errepikatu direnak eta, haien zuzenketa beharrezkoa izanik, egin ez direnak.
- Langile akademikoei, laguntza zerbitzuei eta azpiegiturei buruz memorian hartutako konpromiso argiak eta objektiboak ez betetzea.
- Ezin izango da lortu akreditazioa, inolaz ere, jarraian adierazitako irizpideetako batean “ez da lortzen” emaitza ematen bada:

4.Irizpidea: Langile akademikoak

5. Irizpidea: Baliabide materialak eta ikasleentzako laguntza

6.Irizpidea: Ikaskuntza emaitzak

Beste irizpide batzuetan huts larriak antzemanenez gero ere, kontrako txostena eman ahal izango da.

Unibertsitate Politikaren Biltzar Orokorrek onartutako CURSA protokoloaren arabera, Unibertsitate bereko hainbat zentrotan ematen den titulu baten ebaluazioak derrigorrean aldatu beharreko alderdiak jasotzen dituen Behin-Behineko Txosten bat lortu dezake, titulua ematen den zentroren batean ez-betetze larriak antzematen badira, besteak beste, hutsune horiek gertatzen diren zentroaren edo zentroen parte-hartzea kentzea. Behin Betiko aldeko Txostena lortzeko, unibertsitateak konpromisoa hartuko du, akreditazioa berritzea lortu ondoren, hala badagokio, ikasketa-planaren aldaketa puntualari ekingo zaiola, zentzuzko epe batean zentro horri dagokion titulua emateko baztertzeko.

## 7. AKREDITAZIOA BERRITZEKO, AUDIT-EN ETA DOCENTIA-REN ARTEKO HARREMANA

Unibertsitateek Unibertsitate Prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Sistemak Aitortzeko Programa (AUDIT) ezarri izanaren ziurtagiria badute, akreditazio txostenaren edukia aintzat hartuko da tituluaren akreditazioa berritzeko prozesuan. Arau orokor gisa, bisita-panelak akreditazioa berritzeko jarraibide hauek ez ditu berriro ebaluatuko unibertsitate-zentroak bisitatzen dituztenean:

- 1. Irizpidea: Antolakuntza eta garapena.
  - 1.2. Definitutako egreso-profilak (eta ikasketa planean duen hedadura) garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren, zientifikoaren edo profesionalaren baldintzen arabera eguneratuta dago.

- 1.5. Araudi akademiko ezberdinen ezarpena (iraunkortasuna, onespena, etab.) era egokian burutzen da eta irakaskuntza etekinen adierazleen balioak hobetzea ahalbidetzen du.
- 2. Irizpidea: Informazioa eta gardentasuna.
- 3. Irizpidea: Kalitatea Bermatzeko Sistema.
- 4. Irizpidea: Langile akademikoak.
  - 4.3. Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.
- 5. Irizpidea: Laguntza-langileak, baliabide materialak eta zerbitzuak.
  - 5.4. Matrikulatutako ikasleen eskura jartzen diren laguntzarako zerbitzuak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako zerbitzuak tituluari dagozkion gaitasunei eta modalitateari egokituta daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalbidetzen dute.

Unibertsitateek DOCENTIA ezarpen-ziurtagiria badute, akreditazio txostenaren edukia tituluaren akreditazioa berritzeko prozesuan aintzat hartuko da. DOCENTIA akreditazio prozesuan zehar zentroan ezarritako Irakaskuntza Kalitatearen Ebaluazio Sistemaren alderdi ezberdinen balioespenaren gogoeta egiten da. Balioespen hori ebaluazio-txostenean islatzen da eta haren edukia zentroaren tituluen akreditazioa berritzeko prozesuan aintzat hartuko da. Horrela, Unibertsitateak DOCENTIA ziurtagiria duenean bisita-panelak ez ditu akreditazioa berritzeko jarraibide hauek ebaluatuko:

- 3.3. Inplementatutako KBS-k ebaluazioa errazten eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatea hobetzen dituzten prozedurak ditu.
- 4.3. Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.

Hala eta guztiz ere, informazio iturri ezberdinetatik, Unibasqek zentroan ematen diren tituluetan intzidentziak antzemango balitu, akreditazio-ereduan ezarritako irizpideak ebaluatuko ditu, nahiz eta zentroak AUDIT ziurtagiria edo Unibertsitateak DOCENTIA ziurtagiria izan.